

...eta

Kitto!

924 zkio.
2015-III-27



Bizikletak udaberrirako dira

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

AHOLKULARITZA

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com

Beitru



R.P.S. 253/14

GUESS

G-STAR RAW

DSQUARED2

Marc O'Polo

ROXY

LIU·JO

OAKLEY

Timberland

QUIKSILVER

kaviar gauche & Brendel

CAROLINA HERRERA

... eta zure gustoko beste hainbeste marka



Julian Etxeberria, 13

Tel. 943 700 230



...eta kitto!
Euskara Elkartea
komunikabideak@etakitto.eus
Urkizu 11. 943 20 09 18
www.etakitto.eus

kamisetak 12 euro

sudaderak 25 euro

bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan



eta kitto

ASTEAN ESANAK

"Zenbat denbora behar du Messik gutako batatz besteko urteroko soldata irabazteko? 11 minutu. Zenbat denbora beharko luke gutako batek Messik urtero jasotzen duena irabazteko? Ia mila urte lanean"

(LUIS GOMEZ, KAZETARIA)

"Villalabeitia Kutxabank-eko presidente berriak Mario Fernandez aurrekoak baino %73 hasi da kobratzen: 463.000 euro nahiko ez, eta 800.000 du urteko soldata. Hau da, egun batean gehiago kobratzen du batez beste hileroko behargin batek kobratzen duena baino. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) 616 eurotan badago, 110 iruzurti baino gehiago behar dira haren soldatara gerturatuzeko"

(FERNANDO GUTIERREZ, ZUTABEGILEA)

"Benetako iraultza izango da hasiko garela bestelako jatekoa programatzen eta 3D inprimagailu batekin inprimatzen. Gustu berriak izango dira, orain usaindu ere egiten ez ditugunak. Jana konposatu, inprimatu eta Internetez banatuko dugu laster. Zapore sintetizadoreekin inoiz probatu gabekoak dastatuko ditu aurki gizakiak"

(ADRIAN DAVID CHECK, GEROLOGO IKERTZAILEA)

"Janariak ez du zaporerik berez, burmuinak egindako eraikuntza da. Kolorea aldatzearekin nahikoa da. Alacanteko somelier onenarekin egin nuen proba ardo zuriri kolore beltza gehituz. Zer dastatu zuen? Argi dago: ardo beltza. Janaria plater txikian jartzen baduzu, beteta ikustean, zu ere lehenago beteko zara. Badago beste prozesu bat ere: mahai-tresnak zenbat eta pisu gehiago izan, zapore hobea hartuko diozu, ez du kale egiten"

(CHARLES SPENCE, ZENTZUMEN IKERTZAILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KLAUI.- Zeozer azkar egiten dela esateko erabiltzen den onomatopeia. "Hori markiori gaur edozeiñek egingo leukek: *Ixuraino etorri kamiñoz eta Ixutik klau! segiduan!*".

KLAUSKI.- Haginkadaren onomatopeia. "Klausk! klausk! *ixa bokadillu guztia jan etsan!*".

eskutitzak

KORRIKA 19 EIBARREN

"Euskahaldun" lgoiburuari jarraituta Eibarren egin den **Korrika 19**ak, berriro ere, Euskal Herriak duen altxorrik garrantzitsuena **euskara** dela adierazi du.

Baten batek esan zuen Korrika abian jartzen denetik ez dela AEK-rena Euskal Herriarena baizik. Eibarko AEK-k adierazpen honekin guztiz ados egoteaz gain esker beroenak eman nahi dizkie ei-

bartarrei eta, batez ere, Korrika 19an parte hartu duzuen guztioi.

Euskal Herri osoa zeharkatuko du, ez da inoiz geldituko eta eskuz esku ibiliko den lekukoak duen magiak, ziurta dezala eibartar guztion euskararen aldeko konpromisoa. **Eskerrik asko, Eibar !! Gora Korrika!!**

EIBARKO AEK

ASTE SANTUAN ALERIK EZ

Aste Santua dela-eta, datorren astean ez da alerik izango. Apirilaren 10ean bueltatuko gara normaltasunera.

ERREDAKZIOA



ORDU
ALDAKETA



Martxoko azken domekan (hau da, **29an**) udaberriko ordutegia sartuko da indarrean. Zapatutik domekarako goizaldeko **02.00ak** ailegatzean, erloju guztiak ordubete aurreratu egin beharko ditugu, **03.00etaraino**. Ofizialki **ORDUBETE GUTXIAGO** izango du asteburu honetako domekak. Horrela, agur esango diogu indarrean izan den neguko ordutegiari. Udako ordutegi berri horrek **urriaren 31ra arte** iraungo du; egun horretan neguko jarriko da berriro indarrean.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Euskal Herriko Itzulua

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Gerriaren aztarnak ezagutzeko bisitak

Otsaillian Arrateko kolonixan inaugurau eben Eibarko gerriaren interpretaziño zentrua ezagutzera emoteko ekitaldi-ekin segiduko dabe datozen astietan be. Batetik, gure herrixan Gerra Zibilla zelakua izan zan hobeto ulertzen laguntzeko Arrateko kolonixan preparau daben interpretaziño zentruak ate irekixen jardunaldixak hartuko dittu apirillak 11, 18 eta 25ian (11.00etatik 14.00xetara) eta maiatzak 2, 9, 16, 23 eta 30ian (10.00etatik 14.00xetara). Eta bestetik, Arrate-Akondia inguruan da-

guazen gerrako aztarnetatik ibilbidia egin nahi dabenedako bisitta gidatu gehixago antolatu dittue, oiñ arte egin dittuenak oso harrera ona euki dabe eta: maiatzian zapa-ruero egingo dittue gerrako ibilbidia ezagutzeko urteerak (16xan eta 30ian euskeraz eta 9xan eta 23an gazteleraz), Arrateko kolonixa paretik hasitta. Egun bakotxian 20 lagunekin osatutako taldia onartuko dabe eta ibilbide osua egi-tten lauzpabost ordu emotia kalkulau dabe. Interesa dakanak apirillaren 20tik aurrera



eukiko dau izena emoteko aukeria, Portaleko lehen pisuan, 943708435 telefonora deittuta edo kultura@eibar.net helbidera idatzitta.

Bestalde, udalak Arrateko aterpetxiaren eta Gerra Zibillaren interpretaziño zentruaren kudeaketia lehiaketara

etara dau. Adjudikaziñua eskuratzen dabenak instalaziñuen dinamizaziñua eta mantenimendua kudeatu biharko dittu, aurtengo ekaiñaren 1ian hasi eta datorren urteko maiatzaren 31ra arte. Eskintzak udaletxian jasoko dittue, apirillaren 14ra arte.



Enplegu taillarrak apirillerako

Udaleko Garapen ekonomikua, Enplegua eta Barrikuntza saillak, liburutegixak eta Daiteke gizarte aholkularitzak, iaz egindakuaren bidetik, lan billa dabillen jendiarrendako taillarrak antolatu dittue: "Zure potentziala ezagutu" izenburukua apirillaren 16xan egingo da; "CV eta joera barrixak" izenburukua, apirillaren 23an; eta "Alkarrizketarako prestatu" izenburukua, barriz, apirillaren 30ian. Hirurak Portaleko ikastaro gelan eskinduko dittue, 10.00etatik 12.00xetara. Ikastaruak duan dira, Lanbidek diruz lagunduta daguazelako eta, taillarretatik kanpora, arduradunak bakar-kako orientaziñorako hitzorduak hartuko dittuela emon dabe aditzera. Izena emoteko 943820180 telefonora deittu leike edo, bestela, olaia@daiteke.com (Olaia Gerrickabeitia) edo ainhoa.erkiaga@daiteke.com (Ainhoa Erkiaga) helbidietara idatzi.

Zuzendaritza barritu dau ...eta kitto!-k

Martxuaren 12xan egindako Urteko Batzar Nagusixan zuzendaritza barritu eban ...eta kitto! Euskara Elkarteak: oiñ arte zuzendaritzako kidiak izan diran Unai Campo, Josu Mendikute eta Juan Barahonak zuzendaritza laga eta, euren orde, Ana Aizpurua, Leire Alberdi eta Jon Mardaras sartu dira. Beraz, bazkidiak onartu da-

ben zuzendaritza barrixa holan osatuta geratu da: Ainara Argoitia (presidentia), Moises Gonzalez (presidente-ordia), Maider Aranberri (idazkarixa), Marisol Uriarte (diruzaiña) eta Ana Aizpurua, Leire Alberdi, Aitor Alberdi, Julian Fernandez, Jon Mardaras, Ekaitz Olaizola eta Ane Urkiola (bokalak).



Aurreko zuzendaritzakuak eta barrikuak talde argazkixan. Juanito Barahona oiñ arteko presidentiak (eskumatik hasitta lehelengua) lekukua pasatu detsa Ainara Argoitiari (lehen a ezkerretik). Beste irudixan marxuaren 12ko batzarreko une bat. SILBIA H.

Eibar-Saharakoen liburu azoka asteburuan

Bigarren eskuko liburu azokia ipiñiko dabe Eibar-Sahara alkartekuak asteburuan Untzagan. Egun bixetan, zapatuan eta domekan goizeko 11.30xetatik arratsaldeko 19.30xetara zabalduko dabe azokia eta nahi dabenak liburuak, ipoiñak eta pelutxiak eruateko aukeria eukiko



Bigarren eskuko liburuak lortzeko aukera politta eskintzen dabe Eibar Sahara alkartekuak. LEIRE ITURBE

dau, azokan saldu deixen. Alkarteko ordezkariak azaldu dabenez, saltzen dabenari esker batutako dirua kanpamentuetan daguezen hezkuntza bereziko eskoletara maiztuzian bidaliko dittuen gosarirako produktuak (galletak, mermeladak eta kakaua) erosteko erabiliko dabe. Iaz be horretarako erabili zittuen urte bittan egindako azoketan batu zittuen 2.500 euroak.

Uni-ko ikasliak European praktketan

Uni Eibar-Ermua BHI-ko hamalau ikasle Europara jua dira praktikak egittera, horretarako jaso dittuen Erasmus bekeri esker: eurretako bederatzi Poloniara (Krakoviara eta Wroclawera) jua dira, bi Txekiar Errepublikara (Pragara), bat Frantziara (Parisera), beste bat Maltara eta beste bat Erresuma Batua (Llangolenera). Erasmus beki jaso daben ikasle h6nek arlo diferentietako ikasketak

egitten dabiz: seik Nazi6arteko Merkataritza ikasten ari dira, bik Administrazi6ua eta Finantzak, beste bik Plataforma Anitzeko Aplikazi6iuen Garapena, beste bik Merkataritza Jarduerak eta beste bixak, barriz, Mikroinformatika Sistemak eta Sareak. Atzerriaxan praktikak egittera jua bai6o lehen, ikasliak eta Santiago Iruretagoiena eta Aitor Zumelaga irakasliak prestakuntza-bidaia

egin eben Poloniara otsaillaren 23tik 27ra: bestiak beste, Urszula Lamot Krakovian "Proyecto Ib6rico" agentziako arduradunarekin eta Wroclawen "Aviva! Poland"-eko Konstancja Szymurarekin biltzeko aukeria euki eben eta, horrekin batera, ikaslietako batek praktikak egingo dittuan Delphi enpresara bisitan jua ziran.



autuan

IKASLE OHIEN BATZARRA

Armerixa Eskolako Ikasle Ohien Alkartiak LXV. Batzar Nagusixa egingo dau bixar. Goizeko hamarretan ekingo detse programiari, juaten diraneri harrerria egin eta ziurtagirixak banatuta. Argazki ofiziala eguardixan, 12.15xetan etarako dabe eta, hamaiketakua hartu eta jarraixan "De la industria tradicional a la fabricaci6n digital" hitzaldixa emongo dabe Hirikiten alkartekuak. Ekitaldixa agurtzeko Unzaga Plaza hotelian bazkalduko dabe eta hantxe banatuko detsez intsigniak eta diplomak 25. eta 50. urteurrena betetzen daben 1965. eta 1990. urtietako promozio6uetakeri.

HAUTAGAITZAREN AURKEZPENA

Gaur arratsaldian, 19.00etan presentauko dabe datozen Udal Hauteskundiatarako EAJ-PNVren taldia, Untzagan egingo daben ekitaldixan. Bestiak beste Eva Juez alkategaixak, Markel Olano Ahaldun Nagusirako hautagaixak eta Joseba Egibar GBBren presidentiak hartuko dabe parte. Bestalde, datorren martitzenian, 19.00etan, Ibon Areso Bilboko alkatiak hitzaldixa emongo dau Batzokixan, Bizkaiko hiriburuak hirigintza arluan izandako eraldaketia azaltzeko.

AMA6AKO JALETAKO ZOZKETA

Domekako ONCEko azken lau zenbakixekin bat datorren rifak jasoko dau guztira 1.000 euroko balioa duen Ama6ako Jaixetarako zozketaren sarixa. Saldutako txarteletan gazteleraz martxuaren 29ko data ondo dago, bai6a euskeraz ekai6aren 29 ipintzen dau eta hori okerra da; domekakua da data zuzena.



asteko 37 datua

eibartar kontratatzia bultzatu dau udalak 2014. urtetik hona. Lanbiderekin alkarlanian 14 kontratu (9 indefiniduak) diruz lagundu dittue; enplegua sortzeko emon dittuen 83.961 euroak herriko 12 enpresari lagundu detse.



Aurreko asteko eguaztenian emon eben ezagutzera Topalekuan aurrerantzian Arrate Kultur Elkartiaren logotipua izango dana: Nestor Perez Valenciagak egindakua aukeratu dabe logotipua hautatzeko antolatu eben lehiaketara aurkeztutako 37 proposamenen artian. Alkarteko ordezkariak azaldu dabenez, "logotipo barrixa aukeratzeko lehiaketia antolatzea erabagi genduan eta, aurkeztutako lanak erakusketan ikusgai ipiñi genduzen hamabost egunian, alkar-teko bazkidiak hórretxek ikusi eta boto bidez gehixen gustatzen jakuena aukeratzeko". Irabazliak logotipuarekin batera horri buruzko azalpen laburra aurkeztu eban eta hori "asko gustatu jakuela" gaiñeratu eben. Oin erronka "jendiak logotipo barrixa ezagutzen jua eta Arrate Kultur Elkartearekin

Kulturalaren logotipo barrixa



Nestor Perez Valenciaga logotipo irabazlearekin. SILBIA HERNANDEZ

identifikatzaia" dala diñue eta horretarako, bestiak beste, logotipua Kulturalak dittuan ixa 300 bazkidiendako egingo diran kametetan erabiltzeko asmua dake. Irabazliak 1.000 euroko sarixa jaso eban, baiña hartu eta berehala dirua beste batenbateri emoteko asmua zekala esan eban: "Arrate Kultur Elkarteak nere logotipua

aukeratzaia ohore haundixa da neretako, hori nahikua sari da neretako. Horregaittik sarixarekin irabazittako dirua Amañako neska bateri, Fibrodisplasia Osifikatzaillle Progresibua izeneko gaixotasuna dakan Iratiri emotia erabagi dot". Esan eta egin, Iratiri laguntzeko dirua aste honetan bertan entregau detse.

Suedian ere Korrika

Euskal Herrian ez eze, atzerrian be ospatzen dabe askok Korrika, etxetik kanpora daguazten euskaldunak mundu osuan Korrikari lotutako ekitaldi mordua antolatzen dittue eta. Astelehenian gure herrixa ziherkatu eban Korrika etxetik urruti harrapau dittuenetako bat erretratuan ikusten dozuen Maider Martin izan da: Eusko Jaurlaritzak hillebete batzuetarako Suedian biharrian jarduteko bekia emon zetsan, baiña halandabe ez dau euskeriaren aldeko lasterketia galdu nahi izan eta, han daguazten beste euskaldunekin batera, Korrika edarto ospatu eban.



La Salleko ikasliak pozik Candanchun

Urtero lez, La Salle ikastetxeko 3. DBHko ikasliak edarto ibilli dira Candanchu aldian, oin dala egun batzuk hara egindako bidaian. Eskia ez eze, gaztiak snow-a praktikatzeko aukeria be euki eben. Jacan pasau zittuen egunetan, goizak eski ikasturuan pasau zittuen eta, bazkaldu eta jarraixan, klasian ikasittakua praktikatzan bete zittuen arratsaldiak.



Kaleratzeak Stop-ekuen salaketia Untzagan

Kaleratzeak Stop Debabarrena plataformak Untzagan alkarretartzia egin eben martitzenian, aurreko zapatuan Ansoainen bere buruaz beste egin eban andrazkuaren heriotzak eragindako hasaria adierazteko eta horrelako heriotzetan "bankuak eta gobernuak errudunak dirala" salatzeke. Asteburuan hildako andrak Euskadiko Kutxara jo eban aurreko barixakuan eta, bankuak Praktika Onen Kodigua ukatu eta hurrengo egunian, bere buruaz beste egin eban.



MIREN JOSUNE ETXANIZ, LHko irakaslea:

Miren Josune Etxaniz eibartarra Lehen Hezkuntzako irakaslea da Arrasateko Arizmendi ikastolan eta "MU-Mondragon ikasketa amaierako proiektuak euskaraz" Lehiaketaren laugarren edizioa irabazi du. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean "Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan" masterra egin ondoren, Arizmendi Ikastolan egin du bere Master Bukaerako proiektua. Saritutako lanak "Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle etorri berrien pertzepzioak euskararen ikaskuntzaren inguruan" du izena.

"Ikasle etorri berriek euskararekiko jarrera positiboa izaten dute"

- Azkenengo urteetan biztanle mugimendu nabarmena izan da, atzeritar asko etorri dira gure artean bizitzera. Horrek nolako eragina izan du eskoletan?

Kanpotik etorritako ikasleak ditugulako eta beste hainbat arrazoirengatik, ikasgeletako aniztasuna handitu egin da. Ikasle bakoitzaren ezaugarri, gaitasun eta ikasteko erritmoei erantzuteko eta denen parte-hartzea eta garapena bermatzeko, hau da, eskola inklusiboa gauzatzeko, berrikuntza metodologikoa beharrezkoa da.

- Kultura eta hizkuntza desberdinetako haurrak guregana ailegatzan direnean eta euskararekin topo egiten dutenean, zer nolako pertzepzioa izaten dute euskararen inguruan?

Nire ikerketa lana Arizmendi Ikastolako Lehen Hezkuntzan zentratu da. Hizkuntza Indartzeko Programan zeuden ikasleekin elkarrizketak izan nituen eta euren testigantzen azterketatik irteten da ikasle etorri berriek ikaskide autoktonoekin identifikatu nahi dutenez, euskara ikasteko gogoia eta beharra sentitzen dutela. Euskararekiko jarrera positiboa dute eta hizkuntza ikasteko motibatuta daude.

Garrantzitsua da kontutan izatea etorri berriek euskararekin topo egiteaz gain, batzuk gaztelarekin ere lehenengo aldiz egiten dutela topo eta bi direla ikasi behar dituzten hizkuntzak. Elebitasun egoerak zailtasun gehigarria dakar. Adituen arabera, ikasle etorri berriek bi urte behar izaten dituzte hizkuntza berri batean komunikaziorako konpe-

tentzia eskuratzeko eta gutxienez bost urte hizkuntza konpetentzia akademikoa lortzeko. Beraz, zenbat eta gazteago iritsi, aukera handiagoa dute hizkuntza ikasi eta eskola arrakasta izateko eta zenbat eta zaharrago zailagoa izango da.

- Nola lagundu ahal zaie ikasle etorri berri hauei?

2003 urtetik aurrera Hezkuntza Saila ikas-tetxeek jarraitu beharreko oinarriko orientabide eta proposamenak egiten joan da: Hizkuntza Indartzeko Programak, ikasle etorkinentzat harrera-plana, kulturarteko proiektuak, proposamen metodologikoak, eta abar. Gauza asko egin daiteke.



Arrasateko Arizmendi Ikastolan ematen ditu klaseak Etxanizek. ANA AIZPURUA

Nire ikerketak hizkuntzaren ikaskuntza dauka kontuan, hizkuntza sozializaziorako eta eskolan ikasi beharrekoa ikasteko giltza delako. Euskera ikasteko prozesuan ikasleek ematen dizkieten laguntzak aztertzen ditu ikerketak: ikasleek ze laguntza mota jasotzen duten, non, norekin eta nola ikasten duten, ze jarduera eta baliabide dituzten gogokoen... Ematen zaien laguntza hobetzeko asmoz ikasleen iritzia jakitea da helburua.

- Hezkuntza komunitateko eragileek prestakuntza berezia behar izaten dute?

Gizartea abiadura handian aldatzen ari da eta eskolak egokitu beharra dauka. Horretarako hezkuntza komunitateko kide guztien (irakasleak, ikasleak, familiak, aisialdia, udala...) elkarlana eta etengabeko prestakuntza beharrezkoa da. Kulturartekotasunaren kasuan, aurreiritzi asko apurtu beharra dago eta aniztasuna aberastasun bezala bizitzen ikasi behar da.

- Zeintzuk dira Master Bukaerako Lanaren ondorio nagusiak?

Aztertutako ikastolan, ikasle etorri berriek eremu askotako laguntza antzematen badute ere, ikaskideek ematen dieten laguntza hobesten dute. Irakasleon lanari garrantzirik kendu gabe, eurentzat ikaskide-laguna da "hizkuntza irakasle" inportanteena. Ikasle estrategiei dagokienez, ahozko elkarrekintza da eurentzat esanguratsuen. Beraz, "ikasle hizkuntza-irakasle" rola planifikazioa eta arloetan gelako ahozko elkarrekintzaren diseinua lirateke potentzial handiko bi arreta gune irakaslearentzat.

19. *aek* korrika

Urepeletik Bilbora 2015eko martxoaren 19tik 29ra

Eibartik martxoaren 23an pasatu zen lekukoa

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI



Uni Eibar-Ermua BH

Armeria Eskola



Itzio Ikastetxea



Astixa



Iosu, Pana eta Arrateren Lagunak



AEK



LAB



Eibarko Dendarien Elkartea



Sosoa Abesbatza



Arrate Kultur Elkartea



Euskal Herrian Euskaraz



EH Bildu



EAJ/PNV



Urkizu Guraso Elkartea



Laboral Kutxa



Udaleko Euskara Batzordea



Hankarotxak



I. Zuloaga Institutoa



Armañako Jai Batzordea




Mogel-Isasi BH



Aspe



Eibar Kirol Elkarte



Eibar Rugby Taldea



Ernai



Klub Deportiboa



Ez Dok taberna



Legarreko Jai Batzordea



Sare



Etixerat



EGI



J.A. Mogel Guraso Elkarte



J.A. Mogel Ikastola



...eta kitto!



Udal beharginak



Ustekabe



Tekniker



Hirugarren sektorera moldatzen doian herrixa

Badira urte batzuk "Eibar" eta "industria", betidanik ixa derrigorrian bata bestiarri lotuta, alkarrekin erabiltzen genduazan berba bixak bata bestiarendik aldentzen hasi zirala eta, bikote batzueri pasatzen jakue moduan, urtiak aurrera jua ahala bixen arteko distantzia haunditzen eta haunditzen jua da, harremana ixa erabat eten arte. Eta, bixen bittartian, oin dala ez horrenbeste denpora gehixenori nahiko arrotzak egitten jakuzen beste berba batzuk, "zerbitzu hirixa", "merkataritza gunia" eta antzerako beste batzuk gero eta sarrixago entzuten hasi giñan eta, konturau orduko, gure herrixaren izaerari hain lotuta eguan industriak lagatako tokixa betetzen jua ziran, azkenian Eibar berbiaren aldamenian normal-normal erabiltzen hastia lortu daben arte: gaur egunian edozeiñek Eibar zerbitzuen hirixa dala esan ezkeru ez giñake larregi harrittuko eta, eritzixak eritzi, etorkizunian Eibar hirugarren sektoriari eskindutako hirixa izango dala barneratzen jua gara eta, gustau ala ez, aspaldi sartu giñan hori lortzeko bidian. Puntu horretara aillegauta, emoten goiazan pausuekin asmatzia da oin kontua.



Horrenbeste denporan bakarrik lehen sektoriaren inguruan bizi izan dan herrixak hirugarren sektorera saltua emotia posible izateko, hamaika proiektu eta eraldaketa egin dira herrixan eta oindiok be beste hamaika kanbixu ezagutuko dittu Eibarrek. Edozelan be, eraldaketa prozesuan gauzak ondo egitten ari diran ala ez jakittekko modu diferentiak dagoz eta hórretako bat aztertu nahi danaren inguruko diagnostikua egittia da. Hain zuzen be, gure herriko ostalaritza eta turismo eskintzaren kalidadia neurtzeko biharraren emaitzak oin dala aste gitxi presentau zittuen udaletxiak hartu eban agerraldixan eta, ixa jarraixan, merkataritza bizibarritzeko plan barrixa aurkeztu eben. Oindiok mejorau biharreko gauza asko dagoz, baiña edozelan be azterketa gainditzeko moduko notia, 0tik 10era doian eskalan 5'67 lortu dau herriko ostalaritzak,

bezeruak eurak emondako puntuaziñuari esker eta, adituak diñuenez, aurrera begira notia igotzen juateko potentziala haundixa da.

Merkataritzarako plan barrixa

Ostalaritza albo batian laga eta merkataritzara begiratzu gero, udalak oin dala egun batzuk emon zittuan ezagutzera amaittu barri daben Merkataritza Bizibarritzeko Plan Berezixak (PERCO dalakuak) jasotzen dittuan datu eta ondorio nagusiñak. Felix Gorospek koordinau daben planak agerixan laga dittuen datuen artian, gure herrixan denda txikixak daken kokapenaren ingurukuari arreta berezixa eskindu zetsen plana presentatzeko agerraldixan. Merkataritzaren inguruko lanak jasotzen dabenari jarraituta, Eibarren daguazan denda txiki gehixenak, %70 herrixaren erdialdian pillatuta dagoz. Gauzak holan, Errebal



JOSE MAIDAGAN

Aurtengo Aitaren Egunean ere
GUREKIN IZAN ZARA.
Maite zaitugu




eta inguruak atzera be aparteko garrantziza hartzen dabe, herrixaren behealdia dinamizatzeko ezinbesteko elementu billakatuta.

Datuak modu zihetzaguan begiratu gero, herrixaren erdialdeko kalietan denda txiki gehixenak pillatziarekin batera, hortxe batzen dira hórrelakueri eskindutako azalerarik haundiña (%72'25) eta sektoreko bihargin porzentajerik altuena %72,4. Merkataritzari lotuta doiazan salmenta gehixenak, bestalde, Julian Etxebarria kaliaren eta El Corte Ingles merkataritza guniaren bittartian daguazen dendetan egitten dirala azaldu eben planaren egilliak eta, "merkataritzari eskindutako azalera osotik erdixa baiño gehixago betetzen daben Eibarko denden %41" be toki bi hórretxen bittartian dagoz.



Orekaren billa

Planak jasotzen dabenez, erdialdeko kalietan 384 establezimendu dagoz (%61'5): hórretatik 164 dendak dira, 64 ostalaritza arloko negozioak eta gairontzeko 155ak, barriz, zerbitzueri lotutako lokalak. Konparatzen hasi ezkerro, datu hórretxen eta Errebal inguruan jaso dittuenen artian dagan aldia oso nabarmena da: Errebal inguruan 72 denda-negozio kontau dittue (8 ostalaritza arlokuak eta 69 zerbitzu arlokuak, totalian %23). Eta zenbat eta gehixago jaitsi, orduan eta denda gixiango dago: Urkizu aldian dago merkataritzari eskindutako lokal kopururik txikixena, 45 totalian (13 ostalaritza-kuak eta 44 zerbitzu arlokuak, totalian %16 baiño ez). Zenbakixak oso argi erakusten daben moduan, herrixaren alde batetik bestera egoeria asko aldatzen da eta, beraz, desoreka horrekin zelan amaittu leikian izango da etorkizunera begira landu biharreko puntu garrantzitsuenetakua. Bide horretan aurretik be pauso batzuk emon dira eta, edozelan be, billa dabilzan oreka hori lortzeko, Errebalen



Denda gehixenak Ego-Gainetik Julian Etxebarriara bittartian pillatuta dagoz.

eraikiko daben proiektua klabia izango da. Herrixaren merkataritza jarduerara bittan banatzia eragitten daben Errebalgo hutsunia betetziarekin batera, sosiguz sosiguz bada be jendia eta, beraz, erosle potentzialak diranak herrixaren behealdeko denda eta tabernetara erakartzia lortuko dabela pentsatzen dabe agintarixak eta, esperantza horrekin biharrian segiduko dabela argi laga eben plana presentatzeko ekitaldixa agurtu baiño lehen.



*Koldo
(2014-IV-1)*

"Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak"

ZURE
LANKIDEAK



Funeraria · Ehortzetxe
Mugica


| | |
|--|---|
| <p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p> | <p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> |
| <p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p> | |
| <p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>  | |

Euskal Herriko Itzulia Arraten apirilaren 9an

Apirilaren 6an Bilbon hasiko eta 11n Aian amaituko den Euskal Herriko Itzuliak, ohikoa denez, gure herria bisitatuko du 4. etapa Arraten amaituta eta hurrengo Eibartik hasita. Guztira, bost etapetan 33 mendate izango ditu probak, seitik gora etapa bakoitzeko. Amaitzeko, gainera, Aiako aldapa gogorrek hartuko dute zapatuko erlojuaren kontrakoa.

Astelehenean, apirilaren 6an, Bilbon hasiko da etapa eta hiriburua horretan amaituko, etapa erosoena osatu eta gero. Bigarrenak, martitzenekoak, Gasteizera eramango ditu txirrindulariak eta hor ere esprintean erabaki daitekeela uste dute adituek. Hirugarrenak igoera eta jaitsiera asko ditu Zumarragara heldu aurretik, zortzi mendate tarteko. Etapa horretan eta hurrengo bietan kontzentratuko dira 24 igoera.

Arraten amaituko den apirila-



ren 9koak, esaterako, zazpi mendate izango ditu ibilbidean: 1. mailako Ixua eta Usartza, 2. mailako Asentzio eta Karabieta eta 3. mailako Gontzagaigana, Santa Eufemia eta San Miguel. Gure herriatik hiru bider pasatuko dira:

14.30ak inguruan Maltzagatik sartuko dira (56 kilometroan) Elgetara bidean Karabieta gainaren bila; 15.15etan Ermutik sartuko dira (88 kilometroan) Isasi jaitsi eta Azitaineraino, gero bariantetik Ixua joateko; eta azkenik,

Elgoibartik Eibaren sartu eta bariantea hartuko dute (154 kilometroan) 16.50etan, hor bueltan, Usartzako gainaren bila. Helmugara 17.00etatik aurrera helduko dira. Hurrengo etapa, barixakukoa, Azitaindik irtengo da 13.15etan eta Kalbaixoko eta Itziarko gainak izango dituzte hasteko. Egun horretan Aiara iritsiko dira eta han jokatu dute erlojuaren kontrakoa zapatuan.

Parte-hartzaileen artean munduko talde onenak daude, UCI Pro-Tourreko guztiak tartean. Izenak aipatzen hasita, honakoak nabarmendu daitezke: Movistar (Quintana, Anton eta In-txausti), Tinkoff-Saxo (Majka eta Kiserlovski), BMC-Racing (Van Garderen, Gilbert eta Samuel), Etixx-Quick Step (Kwiatkowski eta Tony Martin), Katusha (Joaquin Rodriguez, Spilak eta Moreno), Trek Factory (Mollema, Frank Schleck eta Zubeldia)... Zerrenda luzea, beraz.



Debabarrenekoek bi proba izango dituzte asteburuan

Bihar Zomotzan hartuko dute parte eta etzi Gorlako igoera entzutsuan. Aurretik ere asteburu beteak izan dituzte Klub Deportiboko txirrindulariek eta, horrela, aurreko asteburuan Laukizen izan ziren zapatuan eta Lizarran domekan: Asier Taboada izan zen Juanjo Sebastianen taldeko ordezkari onena proba bietan, Euskadi taldeko Mikel Aristik eta Jon Irisarrik hurrenez hurren irabazitako lasterketetan. Astebete lehenago Lizartzan jokaturakoan Victor Cor-don izan zen Debabarreneko lehena (taldeka 6.ak izan ziren).

Otxoa Memoriala Unai Iribarrentzat

22 laguneko tropelari esprintean irabazita, Limousin Cartonajes taldeko txirrindularia nagusitu zen aurreko domekan Otxoa Me-



morialaren 55. edizioan. Ia 38 kilometro orduko egin zuten tropel horretan helmugaratu ziren kadeak eta guztira 64 iritsi ziren Urkizuko helmugara, tartean zortzi emakumezko. Iribarrekin batera, Luken Carbayedak eta Iñigo Zabalzak osatu zuten podiuma eta Ciclos Iturriagako Jon Ibarluzea izan zen Debabarreneko lehena.



Guby MUTILAK
 Birjiñape, 1 Zuloagatarren, 9

Ezteiak eta Jaunartzeak

Ospakizun guztietarako behar duzuna

VALENCIAGA

Bidebarrieta, 12
 943-202233



Argazkia: Eneritz Medina



Argazkia: Josu Torrealday

94 465 75 77
www.bagoaz.com
info@bagoaz.com


Matienan gaude
 Eibartik 10 minutura
 (autopistan Abadiñoiko irteera)

bidaiak

BIDAIA PERTSONALIZATUAK


EZTEI BIDAIAK

Eguraldi onarekin batera ospakizunak areagotu egiten dira gure artean. Maiatzeko jaunartzeak gain-gainean ditugu; bestalde, jakina denez, bikote gehienek eguraldi ona egiten duen sasoiak aukeratzen dute euren ezkontzarako. Otorduak, bidaiak, jantziak, argazkiak, gonbidapen-txartelak, ilepaindegia, lore-sorta, eraztunak, haurrentzako opariak... Behar ditugun gauza guztiak eskuratzeko aukera zabalak eta kalitatezkoak daukagu Eibarren.



**GU
BY**

GubyChica



J. Etxeberria, 4
Tel. 943 201 551



ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA. 7 - BEHEA

F. PASCUAL

Arane, 6
Telf. 943 20 61 64
Faxa. 943 20 85 43
20600 EIBAR



VIRGINIA PASCUAL

Zubiaurre, 36 (behea)
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28
www.cocinaspascual.com
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK
BARNERAKO



J. Salaberria
Bitxitegia

RELOJERIA
SALABERRIA

Errebal, 22
943 20 20 79



**EZKONTZA tartak
eta
despedidetakoko
(ENKARGUZ)**

ANTXON
DEGUSTAZIOA

T. ETXEBARRIA, 13-
Tel. 943 20 63 22
943 20 05 47



Argazkia: Josu Torrealday

Ezkontzako prestakuntzen artean gasturik handiena, zalan-tzarik gabe, otorduak eragiten du: ezkongaien irudia jokatzen da otorduan eta beraz, garrantzitsua da emaitzarik onenak lortzea. Menua, bazkari edo afariaren egunean txartel batean aurkezten dena, zuzenean kartatik edo horrelako ospakizunetarako diseinatuetatik aukeratu ohi da. Edozein kasutan ere, ez da ahaztu behar, plateren kalitate gastronomikoak ezkontideei jatetxeak aurrez eskaintzen dien dastaketaren parekoa edo antzekoa izan behar duela (bistan da ez dela gauza bera berrehun azpizun edo arraina prestatzea eta lau lagunentzat otordu hori egitea). Ardoetan desberdintasun handiak izaten dira eta arazoak ere sor daitezke, ardoak zerikusi handia baitu otorduz gonbidatuen buruan geratuko den oroitzapenean. Ezkongaiak ardo mota jakin bat aukera dezakete (hobe da gonbidatu gehienek gustuko izango diren ardoak aukeratzea, zenbaiten gustuak aseko ez dituzten edo horientzat arraro gertatuko diren ardo bikainen aldeko aukera egitea baino), eta ardo estandarrarekiko aldea ordaintzea, alderik badago. Otorduaren ondorengo dantzaldian barra libre (edariak doan) eskaintzeko ohitura ere hedatu egin da. Ezkongaiak hori egitea aukeratzen badute, jatetxe edo diskotekarekin ongi zehaztu beharko da zein edari eta zein marka aterako den, gonbidatuekin zenbat zerbitzari izango diren, barra zenbat denboran irekiko den eta ordainketa nola egingo den: edan dena



Argazkia: Josu Torrealday

TERAPIAS Y ESTÉTICA
ALAI

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Laser depilazioa
- Mesoterapia
- Terapia natural alternatiboak
- Terapia ortomolekularra
- Cuanum

TXANDA HARTZEKO 943 20 85 14

Isabel Gómez

www.esteticaalai.com
facebook: alai terapias esteticas





Argazkia: Eneritz Medina

apuntatu eta egindako kontsumoaren arabera, ala gonbidatu kopuruaren arabera, aurrez finkatutako kopurua ordainduko den.

Gizonentzako jantzietan aukera zabala

Askotan ezkontzan andregaiaren soinekoari garrantzia gehiago ematen zaiola dirudi. Ezkontza bien artekoa da, eta beraz, senargaiaren janzkera ez da ahaztu behar. Egia da, senargaiaren jantzia hautatzeko denbora gutxiago behar dela; hala ere, gero eta gehiago dira ezkontza egunerako bere itxura zaintzen duten gizonak. Kontuan hartu behar da gainera, ezkongaien janzkerek bat etorri behar dutela. Gizonentzako aukerak ugaritu egin dira azken urteetan. Ehunen eta koloreen hautua zabaldu da. Aurtengo kolekzioetan grisak sekulako indarra dauka. Diseinatzaile batzuk metalizatuen aldeko apostua egin dute (brontzea, urrea, berde iluna edo borgoña). Ausartenentzako badaude beste aukera batzuk ere: okaran tonoa, zelestak eta kremak. Lebitak ikusiko ditugu aurtengo ezkontzetan, eta baita es-




Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

fasprint

Inprimategia - Serigrafia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan
eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es
Ego Gain, 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

Twins

bidebarrieta, 8 • tel. 943 05 60 82



LIDE

GAZTE MODA
JAUNARTZE ETA
EZKONTZETARAKO JANTZIAK

T. ETXEBARRIA, 10 TEL. 943530956

RPS 189/09

KERaLa

www.estetikakerala.es
www.cosmeticadelbienestar.es

Urkizu, 11 solairuartea 943 53 05 25

Makillajea Etxean Bertan

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak,
Emaztegiandako BONO BEREZIA...




ENERITZ MEDINA
argazkilaria
www.eneritzmedina.com
tel. 661 538 122



Roca CALBETON, 16
-EIBAR-
TEL. 943 20 80 06

Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!




Argazkia: Josu Torrealday

mokinak eta txaketa marinerokoak ere. Aditu guztiak bat datoz senargaia eroso sentitu behar dela esaterakoan; horregatik senargaiak bere gustukoa eta eroso sentiarazten duen arropa aukeratu behar du.

Emaztegaiendako soinekoetan ere grisa da nagusi diseinatzaileen proposamenen artean. Kolore honek ikutu romantikoa ematen dio soinekoari. Bestalde, enkajeak klabea izaten jarraitzen du, bizkarrak bistan lagatzen dituzten soinekoekin batera. Estilo tradizionala maite dutenentzako estilo minimalista da aurtengo joera nagusia.

2014ko hirugarren hiruhilekoan 2.469 ezkontza izan genituen EAEn, urtebete lehenago baino %2 gutxiago

Ezkontza zibilak, %69; aurreko urteko aldi berean baino ehuneko puntu bat gehiago.

EUSTATEN datuen arabera, 2014ko uztaila, abuztua eta irailen guztira 2.469 ezkontza izan genituen EAEn; aurreko urteko hiruhileko beraren aldean %2 gutxiago. Arabarrek 412 ezkontza egin zituzten, gipuzkoarrek 792 eta bizkaitarrek 1.200. EAetik kanpo biziko direnen kasuan, ezkontzak 65 izan ziren.

2014ko hirugarren hiruhilekoan ezkontzen %69,4 zibilak izan ziren; 2013ko aldi berean baino 1,3 puntu gehiago. 2014ko bigarren hiruhilekoaren aldean (%77,2) ere txikiagoa da.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es

Aurpegi tratamenduak



- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)
- Mikrodermoabrasioa

**BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA**

LASER DEPILAZIOA

30€ zona bakoitza

Hanka osoak + Izterondoak: 90€

Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrequentzia / Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa




BILATUIGUZU GURE SARE SOZIALETAN:

 facebook.com/castanopeluqueros

 twitter.com/castanopelu

CASTANO

PELUQUEROS

Fermin Calbeton, 1 943 207047 contacto@castanopeluqueros.es www.castanopeluqueros.es



Argazkia: Josu Torrealday

Senarren %86k eta emazteen %72k 30 urte edo gehiago zituzten

Ezkontideek eztei-egunean zuten adinari erreparatuta, senarren %85,9k eta emazteen %71,9k 30 urtetik gora zituzten. Aurreko urteko aldi beraren aldean, proportzioa gizonen artean bakarrik handitu da. 2013an gizonen %84 eta emakumeen %72,4 ziren.

2014ko hirugarren hiruhileko 2.469 ezkontzetan, bizilekua EAEn duten 2.381 gizon eta 2.415 emakume ezkondu ziren. 2.156 senarrentzat (%90,6), lehen ezkontza; 13 alargun eta 212 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Emakume ezkongabeak, 2.203 (%91,2); alargunak, 10; dibortziatuak, 202.

Emakume ezkonberrien %8 atzerritarrak izan ziren

2014ko udako ezkontzetan, gizonen %6 eta emakumeen %8,1 atzerritarrak ziren. Ezkontzarik gehien (1.069) uztailean; ondoren (956), irailean. Aurrekoetan bezala, ezkontzarik gutxien (444) izandako udako hila abuztua izan zen, aurreko urteko hil beraren aldean %5,7 gehiago. Sexu bereko pertsonen artean, 45 ezkontza; urtebete lehenago, 36.



Argazkia: Josu Torrealday

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

www.kantabriajatetxea.com
kantabria@kantabriajatetxea.com

Arrate Gaina, 4
 279 Postakutxa
 20600 EIBAR
 Tel. 943 121 262

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

**RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA**

lfar kale, 6
boga
943702024

ESTILISTAK & JANTZIDENDA

I ♥ 9'99 €

arropa berria asteartero



UNITED COLORS OF BENETTON.

F. Calbeton, 6 - 943 20 85 67



BERRIA

Osagarriak:
Emaztegi, gonbidatu
eta jaunartzeetako
neskatxoendako

Toribio Etxebarria, 22. Tel. 943 12 72 36

EL TIO PALANCAS

Juan Gisasola, 8. Tel. 665 70 20 82



- Txutxeekin egindako tarta pertsonalizatuak (futura, kopinak...)
- Jaunartze eta bestelako ospakizun-kaxak



Jaunartzeak

Lehenengo Jaunartzea 9-10 urte bitarteko ume katolikoek bitzitzen duten ospakizun erlijiosoa da. Adinarena ez da beti horrela izan. Aspaldi 7 urterekin egiten zen eta 12 urterekin ere ospatu izan da; hurrei "ospatzen ari direna ulertzeko heldutasuna eskatzen zaie". Lehenengo Jaunartzea egin aurretik, haurrak katekesia edo hezkuntza katolikoko aldi bat pasa behar izaten du, urtebete edo bi urtetan, otoitz katolikoak eta oinarrizko dogma katolikoak ikasteko. Behin ikastaroa amaituta, hurrek aitortzaren sakramentua jasotzen dute, ondoren euskaristian parte hartu ahal izateko.

Maiatza da Elizak aukeratutako hilabetea jaunartzeak egiteko. Ez dago jaunartzearen data ezartzen duen araurik. Izan ere, Hego Amerikako herrialde askotan jaunartzeak azaroa eta abendua bitartean ospatzen dituzte. Guk, tradizioz, maiatzean ospatzen dugu, Pazkoa eta Korpus egunaren artean, berpizkundegandea baino 60 egun geroago.

Haurrentzat, familientzat eta Elizarentzat Lehenengo Jaunartzea lagunartean eta senitartekoekin ospatzeko jaia da. Euskal Herrian eta inguruan, familia askorentzat egun hau jantzi, osagarri eta kontu handiz antolatutako ospakizunetz beteta da-



Bidebarrieta, 1. Tel. 943 20 15 80



Argazkia: Eneritz Medina

tor; izan ere, jaunartzea sarritan ezkontza ospakizun baten parekoa izaten da.

Lehenengo Jaunartzea garestitzen duena, batez ere, banketea edo otordua izaten da. Hala ere, adituek esaten dutenez, gizartean izan diren aldaketek eragina izan dute jaunartzeak ospatzeko moduan: *“Krisialdian ospakizunek behera egin dutela ikusi da eta otorduak komentsal (jankide) gutxiagorekin egiten dira”*. Familia askok etxean edo lokal batean (elkarte gastronomikoak, esate baterako) egitea aukeratzen dute.

Elizak apaltasuna eta xumetasuna eskatzen du egun horretarako. Neskatoek soineko zuria erabiltzen dute eta mutiltoek traje formalarekin jantzita joaten dira (marinel, almirante edo tradizionala). Eliza batzutan abituarekin jantzita joaten dira, bertako apaizek horrela eskatuta. Orokorrean eleganzia eta apaltasuna dira nagusi hurren jantzietan.

Jaunartze-ospakizunetan ohizkoa da oroigarri-txartelak eta beste detaileren batzuk banatzea, haurraren izena eta ospakizunaren data eta lekua adieraziz. Haurrei era askotako opariak egiten zaizkie: erlojua, Biblia, egunerokoa, urrezko katea, argazki kamera... Gure gizartean teknologia berriek duten presentzia dela eta, azken urteotan haurrek telefono mugikorra, tabletak, ordenagailuak, bideo-jokoak... eskatzen dituzte.

ZURE ONGIZATERAKO ESTILO BERRIA. AUKERATUIGUZU!!

Lakett

- Estetika
- Masajea

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

Gerritek
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

OPARI ezinhobeak!!

409 €

185 €

185 €

SMARTPHONE BQ AQUARIS E5 HD
4G 16 GB BLACK
5/QUADCORE/1GB/16GB/
4G/ANDROID4.4

NOTEBOOK ASUS
X552CL-SX022H
BATERIA GELAXKAK: 4
KOLOREA: Beltza
GRAFIKA: NVIDIA GEFORCE
GT710M 1GB
GRAFIKARENTZAKO
MEMORIA: 1 GB
HDD/SSD/ROM: HDD 500 GB
HDMI: BAI /
MEMORIA RAM: 4 GB
MIKROPROZESADOREA:
INTEL i3-3217U 1,80GHZ

TABLET EDISON 3
10.1" BLACK 32 GB BQ
10.1/QUADCORE1,3GHZ/2GB/32GB/
ANDROID4.4

zerbitzu teknikoa

Izadi

San Juan, 1
943 20 33 29

943 20 88 47
688 67 89 34
943 20 33 76

T. Etxebarriako
El Corte Ingles-ean

LORA
DENDA

Lara

M A R S I

BIDEBARRIETA,1
639403457/
943201626

Iker Martinez judoka Euskadiko txapeliduna kadeteetan

Hernanin domekan jokaturako kadete mailako Euskadiko txapelketetan Kalamua Klubeko kirolariak lehiaketa bikaina egin zuen eta, aurkari guztiei irabazita, tartean Gipuzkoakoan bere aurretik geratu zenari, urrezko domina lortu zuen eta txapela bereganatu. Emaizta horrekin,

Iker Martinezek euskal selekzioarekin hartuko du parte Frantziako torneo batean eta baita Jakan maiatzaren 8/9an jokaturako den Espainiako txapelketan. Euskal Federazioak hautatuta, Kalamuako hiru epaile: Pedro Guerra, Julio Gallego eta Manu Agirre ere Hernanin izan ziren, .



Iker Martinez, Julio Gallego eta Manu Agirre epaileekin.

Deporreko xakeko bigarren taldea 1. mailara igo da



Denboraldi bikaina egin dute xakeko Klub Deportiboko bi taldeek eta, maila gorenekoa bigarren geratu den moduan (Billabona txapelidunarengandik puntu erdira), Xabier Beorlegik, Mikel Larreategik, Emilio Jose Freirek, Jose Antonio Garridok, Iker Oliveirrek eta Mikel Baenak osatutako 2. mailako taldeak txapela eta Gipuzkoako 1. mailarako igoera

eskuratu du. Azken jardunaldian galduta ere, aurretik zuten abantaila nahikoa izan zen txapela janzteko. Maila goreneko taldeak, bestalde, Hondarribiako Marlaxkari irabazi zion azken txandan (2.5-1.5); Ricardo Bastidak, Julen Garrok, David Perezek, Edu Olabek, Jon Aranak eta Diego Olmok osatu dute lehen talde hori.

Garaipen ezin garrantzitsuagoa lortu zuen Eibar Hierros Anetxek

Pello Urkidik zuzentzen duen taldeak jaitiera arriskuari ihes egiteko urrats handia eman zuen aurreko domekan Unben puntu eta asmo berdinak zituen Oxigar Belenos aurkariari 21-6 irabazita. Avilesen 10 punturengatik galdu zuten eibartarrek eta horri buelta ematea lortu zuten oraingoan, liga

amaitzeko partidu bakarraren faltan ia erabatekoa izan daitekeen alde ateratzeko. Orain asturiarrek lau entsegu lortu beharko dituzte partidu horretan eibartarrei aurrea hartzeko eta, horrez gain, Eibar Rugby Taldeak zortzi puntuko baino alde handiagoarekin galdu beharko luke Uribealdearekin.



Deporreko mendizaleak Ardo eta arrain bidetik

Aurten lau etapetan banatu duten Ardo eta arrain bidetaren lehenengoa egin zuten Klub Deportiboko mendi batzordekoek martxoaren 14an. Oion eta Laguardiaren arteko bidea 33 lagunek bete zuten, "haize hotza lagun", eta bigarrena apirilaren 25erako dago antolatuta. Laguardia eta Albaina lotuko ditu bigarren etapak.

Igoera faseko partidua gaur Orbeako igerilekuan

Hurrengo denboraldian Euskal Herriko talde onenekin jokatzeko aukera gero eta gertuago du Urbat waterpolo taldeak orain arte jokaturako jardunaldi bietako partiduak irabazi eta gero. Lehen jardunaldian gutxitan ikusten den partidu horietako batean Larrainari 20-18 irabazi zioten Davide Cerchiren mutilek eta azken asteburuan 8-9 nagusitu ziren Getxon. Gaur, 21.45etan hasita, Maristas hartuko du Urbat-Urkotronikeko senior taldeak Orbeako igerilekuan eibartarrentzat ikuskizun bihurtu daitekeen beste neurketa batean.



Katu Kalek maila igotzeko txartela eskuan

Igoera faseko ligaxkako lehen itzulia amaituta, Katu Kalek maila igotzeko hiru plazetako bat eskuratu du Ipuruan Santo Tomas Lizeoa Azkunerri 51-46 irabazi ondoren. Aurreko asteburuan Andraitz liderrarekin Legazpin 59-54 galdu eta gero, beharrezkoa zuten eibartarrek azken partiduko puntuak eta, modu berean, berebiziko garrantzia izango dute bihar Ipuruan Ordiziaren kontra jokoan izango direnak. Partidua 18.00etan hasiko da eta taldeak zaletuen laguntasuna eskertuko du garaipena etxean gera dadin.



Katu Kalek gogor dihardu borrokatzen igoera fasean lehiatzen duten sei taldeen parekidetasunaren aurrean.

Eibarko triatletak gero eta hobeto

Delteco Eibar Triatloi Taldekoek hiru frontetan jardun zuten aurreko asteburuan eta baita uzta oparoa jaso ere. Zapatuan Altsasuko duatloian Julen Teran onena izan zen kadeteetan eta Juanjo Romero eta Iñaki Konde lehenak izan ziren beterranoen 2 eta 3. mailan, hurrenez hurren. Domekan, bestalde, Pello Osorok Isabako neguko triatloia bereganatu zuen, aldi berean



Julen Teran

Euskadiko txapela jantziz Oñatiko duatloian lehena izanda eta bigarrena Arangurenekoan. Txomin Osoro bere anaia Euskadiko azpitxapeldun geratu da. Azkenik, egun bereko Zornotzako duatloian, Pablo Arakistain junior onena izan zen, Edu Oiarzun bigarrena beterranoen 2 mailan eta Aitziber Urkiola 3.a emakumezkoen sailkapen orokorrean.

motzean

ORDUTEGIAK PATRONATUAN

Domekan amaituko dira patineteko jarduerak Ipurua kiroldegian eta apiriletik aurrera udako ordutegia jarriko da martxan. Bestalde, Aste Santuan ordutegi bereziak izango dira kirol instalazioetan: Ipurua 09.00etatik 13.00ak arte egongo da zabalik egun horietan (zapatuan baita 16.00etatik 20.00etara ere), Unbe 09.00etatik 20.00etara zabalduko dute eta Orbea 09.00etatik 14.00ak arte (zapatuan baita 17.00etatik 20.00etara).

FOBALLA

Asteburu honetan 1. mailako partidurik ez badago ere, hurrengo jardunaldia Ipuruan hasiko da barixakuan, apirilaren 3an, 20.45etan hasita Ipuruan jokatu den Eibar-Rayorekin. Hurrengo asteburuan etxean jokatu du berriro Eibarrek, orduan Malagaren aurka, eta klubak partidu bietarako sarreraren pack-a ipini du salgai, partidu bietarako erosita %30eko deskontuarekin. Bestalde, apirilaren 1 In Real Madrilan aurka Bernabeun jokatu beharreko partidurako sarrerak ere salgai daude.



Teresa Miguel, Jennifer Hernandez, Elena Sudupe, Elene Varela, Malen Txurruka eta Nahia Arguiz.

Ipuruako gimnastak geratu barik

Kadete oinarriko Ipuruako bost gimnastek apirilean parte hartuko duten estatuko banakako txapelketa prestatze bidean Euskadiko txapelketan lehiatu zuten aurreko zapatuan. Bostek ere zintarekin jardun zuten, estetikoki polita den baina egiteko zailtasunak dituen ariketan. Egund berean federatu absolutuen Euskal Ligako 1. fasea jokatu zen Leioan eta hor Jennifer Hernandez 7.a izan zen. Asteburu hau ere ez da nolanahikoa izango: bihar Donosti Torneoa jokatu da (Ipuruako lau talderekin) eta etzi Oskitxo Torneoa (Ipuruako sei talderekin).

Arrillaga-Urionabarrenetxea galtzaile Udaberriko finalean

Partidu handia jokatu zuen Klub Deportiboko jubenil mailako bikoteak, baina azkenean amore eman behar izan zuen Aloña Mendiko bikotearen aurrean, pilota finalean 22-19 galduta. Asteburu honetan 2. jubenil mailako finala izango da jokoan eta hor Narbaiza-Gaztañaga Eibarko bikoteak Añorgakoa izango du aurkari. Eta Deba Garaiko torneoan, azkenik, Arrillaga-Agirresarobe bikotea ondo nagusitu zitzaion Oñatiko Aloña Mendiko bikoteari.

Kalamuakoak Gipuzkoako karate txapelketan

Hondarribiako Jostaldi frontoian jokatu zen karateko infantil eta alebin mailako Gipuzkoako txapelketan. Han izan ziren Kalamuako bi ordezkariak bikain lehiatu ziren eta Xuban Ho-yosek zilarrezko domina lortu zuen katetan eta brontzezkoa kumitetan. Alebin mailan jardun zuen Miren Elorza domine-tik gertu izan zen, berriro ere erakutsita zelan hazten doan jokatzeko duen lehiaketan bakoitzeko.

Eskulanetarako trebezia izugarria dauka. Begi bistan dago, lokalaren dekorazioaz bera arduratu baita. "Paletak hartu, apurtu eta paretetan itsatsi ditugu. Salmahaia ere eskuz egina dago", azaldu digu 27 urteko Cristian Cristak. Pasaian jaiotako eibartar honek Abalorium ireki berri du Mekolara igotzeko eskailetan dagoen lokalean. Denda-tailer honetan, eskuz eginiko apaingarriak erosteaz gain, bakoitzak bereak egin ditzake, eskumuturrekoak eta bestelakoak egiteko behar den guztia saltzen dute eta.

- Zer da Abalorium?

Eskumuturrak eta lepokoak erosteko lekurik aproposena (barreak). Guk (bikotekideak eta biok) egiten ditugu, eskuz, eta, nahi izanez gero, pertsonalizatuak izan daitezke. Gainera, beira aleak, larruak eta abar saltzen ditugu, bakoitzak berea egin dezan. Horretarako, tailer txikitxo bat duakagu. Arratsalde pasa etor daiteke, kafetxo bat hartu eta nahi beste eskumuturrak egin.

- Nola ikasi zenuen hau guztia egiten?

Youtuben bideoak ikusten. Zaletasun moduan, denbora-pasa gisa egiten nuen.

- Eta nola bururatu zitzaizun Abalorium sortzea?

Langabezian gelditu ondoren bururatu zitzaidan. Lana neukanean, Iphoneetarako karkasak egin eta interneten bidez saltzen genituen. Egia esan, ez zitzaigun oso ondo joan ez genioloako behar beste denbora eskaintzen. Baina, langabezian egonda, hortxe ikusi nuen nire aukera.

- Zaila izan da ideia aurrera eramatea?

Ez asko. Langabeziako diru-laguntza kapitalizatu nuen eta horrekin ekin nion bideari: lokala aukeratu, egokitu, materiala erosi, produktuak sortu eta, bizpahiru hilabeteko tartean, ateak ireki ditut. Ez naiz inora joan laguntza eske, autonomo kuotako kenketa izan ezik.

- Denda zabaldu zenuela hilabete baino ez da, baina nola doa?

Jendeak oraindik ez daki Abalorium non dagoen eta, beraz, zaila da balorazioa egitea. Baina, egunero daukadan hamar bezerotik, hamarrek erosten dute zerbaite, eta erosketa garrantzitsuak izaten dira. Horregatik, oso pozik nago harrearekin.

- Klaseak ematen hasi zara. Hasierako asmoa zen?

Bai! Hori zen helburuetako bat. Tailerrean lau lagunendako tokia dago eta antolatu genuen lehen klasera hiru lagun etorri ziren. Oso arratsalde atsegina izan zen. Horrelako gehiago egiten jarraituko dugu, ea jendea parte hartzen animatzen den, oso zaletasun polita da eta.



Cristian Crista
(ARTISAUA)

"Langabezian nengoela ikusi nuen nire aukera"



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97 publi.resa@euskalnet.net

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

"Fashion Look" lehiaketa martxan

El Corte Inglesak neska gazteentzako "Fashion Look" lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi duenak merkataritza zentruak gure herrian duen dendara, 2. solairuan lehiaketarako bereziki prestatu duten txokora jo behar du eta, han aurkituko dituen erropen artean bakarra aukeratu ondoren, sortu nahi duen "look" edo irudia osatu beharko du, Green Coast,

Easy Wear edo Formula Joven marketako jantzi zein osagarriak erabilita. Jarraian, "Fashion Look Neska Gazteak" txokoan dagoen "photocallean" argazkia egin beharko du. Lehiaketarako argazkiak apirilaren 17ra arte jasoko dituzte: lehiakideek argazkia concursofashionlook@yahoo.com helbidera bidali beharko dute, euren datu pertsonalekin batera (helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoa eta NANA). Irabazlearentzatko saria erosketak egiteko arratsalde-pasa izango da. Lehiaketaren inguruko informazio gehiago nahi duenak zuzenean dendan galdetu dezake edo, bestela, 943708800 telefono zenbakira deitu.



fórmula GREEN COAST EASY WEAR FIBER

Gazteleku Topaketa egingo da apirilean



Apirilaren 11an Gazteleku Topaketa egingo da Deban lehen aldiz.

Asmo nagusia gazteek inguruko gazteleketan ibiltzen diren neska-mutilak ezagutzeko da eta, horretarako, egun osorako egitaraua antolatu dute: goizean Deba Altxoraren Bilajokoan parte hartzeko aukera izango dute gazteek. Hori amaituta, elkarrekin bazkalduko dute eta, eguna agurtzeko, arratsalde osoan DJ jaialdia egingo da. Topaketa-ara joan nahi dutenek aurretik izena eman beharko dute Indianokua gaztelekuan.

Bestalde, asteburu honetarako egitarauari jarraituta, gaur sexu aholkularitzarako saioa egingo da 17.00etatik 19.00etara. Biharko, berri, pintxo lehiaketa antolatu dute eta domekan Play eta Wii bideo-kontsolekin jokatzeko aukera egingo da. Eta Aste Santuko oporrak tartean, Indianokua gaztelekuak ere jai egun batzuk hartuko ditu eta Pazko-astearen itxi egingo dute.



Funk Off Night! zapatuan Koskorren

Zapatu gauean "Funk Off Night!" jaialdia hartuko du Koskor tabernak. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, disko musikaren inguruko jaia prestatu dute Funk Off! kolektibokoek, baina oraingoan "kilate askoko house labelduna" eskainiko dutela aurreratu dute. Kalitatezko musika eskainiko dutela ziurtatzeko, jaialdia grotzeko horrelako kontuetan eskarmentu handia daukaten lagun bi gonbidatu dituzte: Mikel Kobak (Fellini, La Paloma, Moog, Komplot, Etxekalte, Vocoder...) eta Alain Elektronische (Rare Wiri, Bilboko Caos Club). Eta eurekin batera Gorku eibartarrak ere jardungo du. Betiko lez, musikarekin batera beste hainbat ekitaldi eta sorpresarekin biribilduko dute tabernaren beheko solairuan egingo den jaia.

dia daukaten lagun bi gonbidatu dituzte: Mikel Kobak (Fellini, La Paloma, Moog, Komplot, Etxekalte, Vocoder...) eta Alain Elektronische (Rare Wiri, Bilboko Caos Club). Eta eurekin batera Gorku eibartarrak ere jardungo du. Betiko lez, musikarekin batera beste hainbat ekitaldi eta sorpresarekin biribilduko dute tabernaren beheko solairuan egingo den jaia.



CENTRO M ZENTROA

Zezenbide, 1 - beheka ezka. -EIBAR-



REIKI SHIKI RYOHO

Felipe Arnaz Escudero

REIKI 1. MAILA:

OSABIDE NATURALEKO USUI SISTEMA

Apirilaren 11n eta 12an (15.30etatik 20.00etara)

Kontakturako: 627 916 746 / 943 208 324 (plaza mugatuak)



- Reiki Maisua eta terapeuta: 2.975 Kolegiatua
- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reflexologia
- Teknikoa Kiromasaje eta Osteopatian (5.644 Kol.)
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)
- Hastapena Reikira: I, II eta III Mailak eta Magisteritza

JUAN ALDAI (Antzerki Jardunaldiak)

"Ez da egon sarrerak agortu dituen funtziorik, baina erantzun ona jaso dute denek"

Amaitu da Eibarko Antzerki Jardunaldietako 38. edizioa. Hilabete eta erdi iraun duen programazioak jarraitzaile finak izan ditu berriz ere antolatzaileen esanetan eta eskainitako lanek ere aurrez esperotako asmoak bete dituzte. "Barealdi magikoa" azken funtzioa pasatuta, Juan Aldai jardunaldietako antolatzaileetako batekin izan gara, ekitaldien inguruan bere inpresioak jasotzeko.

- Zelan erantzun du jendeak edizio honetan? Pozik zaudete?

Aurreko urteetako bidetik joan bada ere, oraingoan badaude hainbat ezaugarri azpimarratzekoak. Datu guztiak batu behar baditugu ere, iaz baino ikusle gehiago izan dugulakoan gaude. Positibotzat jotzen dut ere antzerki lanen artean batzuek besteko desbiazioa inoiz baino txikiagoa izan dela: 200 eta 400 arteko ikusle kopurua izan dugu lan guztietan, Markeliñerena geratu da bakarrik hortik behera. Ez da egon sarrerak agortu dituen funtziorik, baina denek izan dute erantzun ona.



- Euskerazko lanek ere bide beretik jo dute?

Gure jardunaldietan, euskerazko antzerkian izan dira hiru lan bereziki nabarmendu direnak, demaseko arrakasta izanda. "Ama begira ezazu" izan zen lehena, gero "El Florido Pensil" etorri zen eta, azkenik, aurtan "Erdibana" izan dugu. Lan hurbila da, jendearengandik gertu, barre ugari egiteko aukera eskaintzen diguna. Jendeak horrelako lanen alde erraz egiten du. Orain dela lau urte ekarri genuen "Kaukasiar krezko borobila" lan bikaina izanda ere, ez zuen jendearen horrelako erantzunik jaso.

- Gazte jenderik gerturatzten da antzerkira?

Oraingoan Piedrahita ikustera etorri ziren gazteenak, horrelako narratzaileak eta txiste-kontalariak dituztelako gogokoak. Batzuek 50 urtetik gorako jendea da Jardunaldiok jarraitzen duena gurean. Eta emakumezko gehiago izaten da gizonezkoak baino. Taldeka ere joaten dira, gainera... gizonezkoetan ematen ez dena.

- Talde guztiak aurretik ere ezagutzen badituzue ere, izan duzue ezustekorik? Onerako, jakina.

Nire iritzia da, ez guztiona. Kamikazeren "Misántropo" lana oso profesionala iruditu zitzaidan, ñabardurak agertzen zituena. Eta, modu xumeagoan, Galiziatik etorritako taldeak eskaini zuen "El hombre almohada" dugu, edozeini gomendatuko ez niokena. Oso bortitza da, galdeketa biolento batekin hasten dena, bisualki berezia... Titulua ere ipuin batetik hartutakoa da eta sentiberatasuna nabaritzen zaio, malkoetan murgildu arte. Modu oso bixian egindakoa, sentsazio arraroekin lagatzen zaitu, gustora ez sentitzera eraman zaitzakeena.

- Orain Eskolarteko Antzerkiarekin hasteko unea duzue, ezta?

Iazko eskema berberari jarraituko diogu. Bosna lan eskainiko ditugu Coliseoan eta Unibertsitatean.



Txoborro magoarekin gustora egon ziren umeak. Behean, hitzaldi- eskulan ekitaldiko parte hartzaileetako batzuk.



Hitzaldia, jokoak eta magia Berbetan-

Gurasoak Berbetan mintzapraktika egitasmoaren barruan, hilaren 13an "Euskerarekiko motibazio eta jarrerak" izenburuko hitzaldia eskaini zuten... eta kitto! Euskara Elkartearen eta, gurasoek hizlariaren azalpenak adi-adi entzuten zituzten bitartean, seme-alabek aldameneko gelan eskulanak egiten ederto eman zuten arratsaldea. Eta handik pare bat egunera, berriz, Txoborro magoak eskaini zuen ikuskizunak jendetza batu zuen, antolatzaileek ekitaldia jende guztiarentzat zabaltea erabaki zuten eta. Magoak bere joko eta trikimailu ikusgarriekin ume zein heldu, denak aho zabalik laga zituen.



Biztu Beheko Tokiko irabazleak euren sariekin. SILBIA HERNANDEZ

Karta-joko guztietan maisuak

Aquilino Gamizek eta Rafael Zubizarretak osatutako bikotea Beheko Tokiko errege izan zen martxoaren lehen astean jokaturako mahai txapelketetan. Orain arte inork lortu ez zuena egin zuten eta mus, tute eta briskako txapelak bereganatu zuten. Hori bai, apirilaren 13an Ipuruako jubiletxean jokaturako den jubilatutako arteko txapelketarako joko batean bakarrik lehiatu beharko dute eta musean saiatzea erabaki dute. Horrela, Beheko Tokiko Biztuk eurekin finaletan galdu zuten beste bi bikoteak aurkeztuko dituzten txapelketara: Pakita Alonso eta Maria Aparicio tutean eta Itziar Loiola eta Teodora Arrea briskan. Bestalde, Adolfo Gutierrez nagusitu zen tokan eta Felix Gandiaga igel-tokan.

Irigoienen "Loreak" Topalekuan

Domekara arte egongo da ikusgai Jose Luis Irigoien argazkilararen "Loreak" izenburuko erakusketa Topalekuan. Deportiboko Argazki Taldeko kideak modelo berari egindako argazkiekin zuri-beltzeko biluzien bilduma osatu du eta, ikusi nahi duenak, gaur arratsaldean (19.00etatik 21.00etara) eta bihar eta etzi, berriz, goizez (12.00etatik 14.00etara) zein arratsaldez (19.00etatik 21.00etara) izango du azken aukera. Irigoienen erakusketa amaitu eta jarraian, datorren eguaztenean inauguratuko dute erakusketa berria, XVIII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketara aurkeztutako lanekin osatutakoa. Erakusketa 19.00etan zabalduko dute eta ekitaldian bertan, sariak banatzean emango dute ezagutzera edizio honetako irabazleak nortzuk diren. Arrate Kultur Elkarteak Aratosteen inguruan antolatutako lehiaketako lanak hilaren 12ra arte egongo dira ikusgai.



Zapatuko ipuina Maite Frankorekin

Bihar 18.00etan Juan San Martin liburutegian 4 urtetik gorako umeentzat pentsatutako ipuin kontalari saioa eskainiko du Maite Frankok, Zapatuko Ipuina programaren barruan. "Panpinak Aitorrentzat" izenburukoa emakume eta gizonen eskubide eta eginbeharren arteko berdintasuna bultzatzeko asmoarekin sortutako kontakizuna da eta, jomuga zabal horren barruan, mendetan "emakumezkoen gauzatat" eta, ondorioz, "bigarren mailakotzat" hartu izan diren rola "gizonezkoenak" moduan hartu izan diren maila berean jartzen ditu.

Sarrera doan izango da, baina liburutegiko arduradunek horrelako saioetan errespetatu beharreko arau batzuk daudela gogorarazi nahi dute: "Emanaldietarako ipintzen diren hasiera ordua zein adina errespetatzeko es-



katzen dugu, behin saioa hasita ez zaio inori sartzen lagako. Horrez gain, saioak entzuten geratzen diren gurasoek isiltasuna eta funtzioaren dinamika errespetatu behar harko dituzte. Eta saioak irauten duen bitartean ez da mailegu zerbitzurik, Txiki Txokorik ezta ordenagailu zerbitzurik ere izango".

katzen dugu, behin saioa hasita ez zaio inori sartzen lagako. Horrez gain, saioak entzuten geratzen diren gurasoek isiltasuna eta funtzioaren dinamika errespetatu be-

laburrak

OGIAREN TAILERRA

Isasi kalean dagoen Sutondo kafetegi-okindegiak 8-11 urte bitarteko neska-mutilentzat ogiaren inguruko tailerra antolatu du. Hiru saio egingo dira, apirilaren 8an, 9an eta 10ean (tailerraren iraupena egun batekoa da, egun bakoitzean talde batek hartuko du parte) eta izena emateko edo informazioa eskatzeko zuzenean okindegira jo daiteke (tailerra doan izango da).



KONTZERTUA BELEKON

Gaur 23.00etan Josu Bergara & The Akorde Txikiak zuzenean entzuteko aukera egongo da Beleko tabernan. Hurrengo kontzertua, berriz, El Capitan Elefantek eskainiko du, apirilak 11an.

Larrain dantza ikastaroa

Maiatzean ospatuko den 50. Euskal Jaiaren harira, larrain dantza ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak. Ana Mailagarai emango dituen klaseak apirilaren 14an hasiko dira eta, hortik aurrera, martitzenero egingo dira, 19.30etatik 21.00etara Kulturalean. Ikastaroa dohakoa da, baina joateko asmoa duenak aurretik izena eman behar du. Horretarako elkartearen bulegora joan daiteke (astelehen eta eguenean, 09.30etatik 11.30etara; eta martitzen eta eguaztentean, 17.00etatik 19.00etara), 943202299 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Isasi, 31
943 207 737

*Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!*

**Ogi ARTISALUA eta
BASERRIKO ogia**
Eibarko prezio
merkeenetan!!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTONDO



Danele Sarriugarterekin Harixa Emoten

Hilero Portalean egiten diren Harixa Emoten literatur tertulien egitarauaren barruan, apirilak 7an, 19.00etatik aurrera "Erraiak" eleberriri mamia ateratzeko aukera izango da, Danele Sarriugarte liburuaren egilea saioan izango da eta. Idazle elgoibartarra Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziaduna da eta gaur egun Bartzelonan bizi da. Hogeitahiru urterekin 2012. urteko Igartza sorkuntza-beka irabazi zuen "Mamuak" nobela proiektuarekin eta, sari horren bidetik, iaz "Erraiak" nobela argitaratu zuen Elkar argitaletxearekin.

Olio-erliebeak Untzagan

Egunotan Imanol Elorzaren olio-erliebeak eta Mandi-
la Laguntaldeak bildutako argazkiak daude ikusgai Untzagak jubilatutxean. Erakusketa ikusi nahi duenak gaur izango du horretarako aukera, 19.15etatik 21.15etara. Datozen egunotan itxita egongo bada ere, jai egunak igarota berri zabalduko dituzte erakusketa areto-

ko atekak, apirilaren 10etik 24ra bitartean, astebarruan 19.15etatik 21.15etara eta asteburu eta jaiegunetan, berri, 12.00etatik 14.00etara.



Jorge Murgiondoren lana ikusgai

Apirilaren 4ra arte Jorge Murgiondoren "Rajasthango koloreak" argazki erakusketa hartuko du El Corte Ingleseko erakusketa aretoak. Bergarako argazkilariak Indiako iparraldera egindako bidaiari hartutako 23 irudik osatzen duten erakusketa 14.00eta-



tatik 21.00etara bisitatu daiteke. Erakusketa egilearen proiektu zabalago baten parte bat da, argazkilariak jorgemurgiondo.com bere blogean bidaiari eta etnografia arloko argazkien azterlana biltzen ari baita, urteetan munduan zehar egindako bidaietako erretratu eta bestelakoekin.

Argazki tailerrera izen-ematea

Deporreko argazkilarietako Argazkilaritza Maiatzan-en barruan, "Workshop: retoque y edicion digital avanzado" izenburuko tailerra eman-
go du 2014ko Espainiako CEF Saria jaso zuen Santos Morenok, ekainaren 6an Portalean. Tailerraren prezioa 20 eurokoa da eta parte hartu nahi duenak argi ibili beharko du, izen-ematea apirilaren 7an zabalduko dute eta. Izan ere, horrelako saioek interes handia eragiten dute eta, orain arte behin-

tzat, izena emateko epea zabaldu eta berehala toki guztiak bete dira urtero. Informazioa eskatzeko zein izena emateko argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi behar da.



(1 ARETOAN)
28an: 17.00, 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
30ean: 20.30

"La teoría del todo"
Zuzendaria: James Marsh



(2 ARETOAN)
28an: 17.00, 19.45, 22.30
29an: 17.00, 20.00
30ean: 20.30

"Perdiendo el norte"
Zuzendaria: Ignacio Gª Valle



(ANTZOKIAN)
28an: 19.45, 22.30
29an: 20.00
30ean: 20.30

"Focus"
Zuzendaria: Glenn Ficara



zineaColiseoan

(ANTZOKIAN)
28an: 17.00
29an: 17.00

"Home. Hogar dulce hogar"
Zuzendaria: Tim Jhonson



laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARIA!!, atzo lau urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat, printzesa, zure famelixaren partez.



Zorionak, SATCH Barail!!, apirilaren 5ian urtetxua egingo dozu-eta. Maya eta Binod zure gurasuen partez.



Zorionak, JONE, gure sorgintxuak bixar bi urte egingo dittu-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL, hillaren 17xan 11 urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bar famelixa eta, batez be, Unairen partez.



Zorionak, IBAI, aurreko zapatuan zortzi urte egin zenduaz-eta, mutil haundi!!! Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, PATXI, juan dan zapatuan sei urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Mirenen partez.




Zorionak, ANE, gaur bederatzi urte betetzen dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, AINARA, hillaren 24an zortzi urte bete zenduaz-eta. Eibarko aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, CHARO, urtiak egin dozuz-eta. Atzerapenarekin bada be, muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, KEPA!, hillaren 18xan sei urte bete zittuan-eta gure etxeko txikixak. Muxu asko etxekuen partez.




Zorionak, JURGEN Aizpun, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, OIHANE Artetxe Leiaristi, atzo 11 urte egin zenduaz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NORA, eguaztenian sei urte egin zenduaz-eta. Muxu bat etxeko danon partez, printzesa!



Zorionak, AMETS, hillaren 24an sei urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Hodeiren partez.



Zorionak, TELMO Aurrekoetxea Etchecopar, apirilaren 4an urtebete egingo dozulako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ITSASO, aurreko domekan lau urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez, eta potoluen Ekirena.



Zorionak, JULIANA Moreno Franco, 16xan hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, ADRIAN Gimare Ruiz, atzo zure lehen urtia bete zenduan-eta. Laztan haundi bat ama eta aittaren partez.



Zorionak, ANDER (martxuaren 15ian bi urte egin zenduaz-eta) eta IZARO (hillaren 24an bost urte egin dozuz-eta). Etxekuen partez.



Txikiak tamainaz, erraldoiak bihotzez. Zorionak, bikote!!



Zorionak, MAIALEN, hillaren 21ian sei urte bete zenduazelako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Ibairen partez.



Zorionak, JONE, apirilaren 1ian zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.

BARIXAKUA 27

GAZTELEKUA

17.00/19.00. Sexu-aholkularitza. Indianokuan.

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalen eta bestelako en salmenta. Deporren.

EKITALDI POLITIKOA

19.00. Eibarko EAJ-ren hautagaitzaren aurkezpena, Eva Juez alkategaiaren, zinegotzigiaren, Markel Olano Ahaldu Nagusirako hautagaiaren eta Joseba Egibar GBB-ren presidentearen parte-hartzearekin. Untzagan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.45. Abesbatzaren eta Musika Eskolako ikasleen kalejira. Untzagatik abiatuta.

KONTZERTUA

23.00. Josu Bergara & The Akorde Txikiak. Beleko tabernan.

ZAPATUA 28

URTEKO BATZARRA

10.00. Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen LXV. Batzarra. Harrera.
10.30. Batzarraren hasiera.
11.30. Zuzendaritzaren mezua.
12.00. Amaiera.
12.15. Argazki ofiziala eta hamaiketako.
13.15/14.00. Hitzaldia: "De la industria tradicional a la fabricacion digital", Hirikiten elkartearen eskutik.
14.30. Bazkaria Unzaga Plaza Hotelean.

DANTZA ENTSEGUA

11.00. Euskal Jaiaren 50. urteurrena dela eta, maiatzaren 31n egingo den dantza-saioan parte hartu nahi dutenentzat entsegu irekia. Mogel Isasin.

GAZTELEKUA

17.00. Pintxo lehiaketa. Indianokuan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00. Ipuin-kontalaria: "Panpinak Aitorrentzat", Maite Frankoren eskutik. 4 urtetik gorako umeentzat. Sarrera doan. Umeen Liburutegian.

KONTZERTUA

00.00. Funk Off Night!, Mikel kobak, Alain Elektronische&Gorku. Koskor tabernan.

DOMEKA 29

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Banda. Coliseoan..

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

MARTITZENA 31

JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

EGUAZTENA 1

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

BARIXAKUA 3

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalen eta bestelako en salmenta. Deporren.

ZAPATUA 4

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Aviones, equipos de rescate". El Corte Inglesean.

MARTITZENA 7

JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Literatur tertulia: "Erraiak", Danele Sarriugarterekin. Portalean (liburutegian).

EGUAZTENA 8

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 9

TXIRRINDULARITZA

14.30. Euskal Herriko Itzuliaren 4. etapa. Maltzagatik sartuta.
15.15. Ermutik sartuta.
16.50. Maltzagatik sartuta.
17.00. Arraten amaiera.

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Pitufos 2". El Corte Inglesean.

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

lehiaketak

✓ Li (buru-hausgarriak)

Apirilaren 8tik aurrera. Juan San Martin Liburutegian.

✓ Fashion Look

Apirilaren 17ra arte. Lanak concursofashionlook@yahoo.com helbidean entregatuko dira. Informazioa: 943-708800.

✓ Sanjuanak Eibarren 2015 Kartel Lehiaketa

✓ **Alkohol larregi ez edateko umorezko pegatina**

Maiatzaren 8ra arte. Lanak Pegoran entregatuko dira.

ikastaroak

✓ Argazki-tailerra: "Workshop: retoque y edición digital"

Ekainaren 6an. Informazioa: argazkilaritza@deporeibar.com

✓ Larrain Dantza ikastaroa

Apirilaren 14tik aurrera. Kultun. Informazioa: 943-202299.

✓ Ogiaren Tailerra

Apirilaren 8an, 9an eta 10ean. Sutondo okindegian (Isasi, 31).

HOROSKOPOA

ARIES

Orain ez zaitez lotsatu. Nahi zenuelako egin zenuen, ezta? Bat baino gehiago dago zuk duzun adorea inbiditan.

TAURUS

Korrikara ondo prestatuta joan zara oraingoan... Argazki guztietan agertu zara-eta! Nahita ere, halakorik...

GEMINI

Nahi baduzu, zergatik ez duzu egingo? Ez beldurtu: saria duzu zain. Zerbait lortzekotan bustitzea ere tokatzen da.

CANCER

Aste Santu bikaina pasatuko duzu, ziur! Astroak zure alde, egun zoragarriak jarraian... Aprobetxatu besterik ez duzu!

LEO

Ez baduzu gorputza gehiago zaintzen, Aste Santuan dituzun egun horiek ezin izango dituzu ganoraz pasatu. Kontuz!

VIRGO

Nahi duzunean ederki egiten dituzu gauzak: txarrena da gutxitan izaten dela hori. Zure esku: badakizu gauza zarela.

LIBRA

Lagun batek ez du bere unerik onena bizi egun eta zure laguntza ezinbestekoa izango da bere osasun mentalarentzat.

SCORPIUS

Ez baduzu modu onenean azaltzen ere, funtsean arrazoia duzu. Berriz azaltzen saiatu beharko zara, ea ulertzen dizuten.

SAGITTARIUS

Alai ibiliko zara datozen asteotan, pozik. Sorpresa bikaina duzu zain, ikusiko duzu! Hori ere bai! aterako zaizu.

CAPRICORNIUS


Ez zara gutxierekin konformatzen. Askorentzat zoragarria izan daitekeena zuretzat ez da aski. Gehiago behar duzu.

AQUARIUS

Mendira joateko egun aproposak izango dituzu Aste Santuan. Ea zaletasuna berreskuratzen duzun behingoz!

PISCIS

Maitasunaren sareetan jausi zara eta seinale ona izango litzateke sare horretan harrapatuta jarraitzea.



erakusketak

- ✓ **Martxoaren 29ra arte**
"DIALOGOS" Lourdes de la Villa eta Rafael Tormo i Cuencaren erakusketa. *Portalean.*
"EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa. *Armagintzaren Museoan (Portalean).*
JOSE LUIS IRIGOIENEN argazki erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Martxoaren 31ra arte**
MIGUEL DAVIDEN argazki erakusketa. *El Ambigún.*
PATXI JATOREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
RSFZ ELKARTEKOEN argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- ✓ **Apirilaren 1etik 12ra arte**
XVII. EGUEN ZURI argazki lehiaketako lanen erakusketa. *Topalekuan.*

hildakoak

- Manuela Gonzalez Velazquez. 87 urte. 2015-III-10.
- Mariano Abascal Gomez. 76 urte. 2015-III-11.
- Consolacion Cruz Cañizares. 78 urte. 2015-III-11.
- Rosario Luna Comerut. 87 urte. 2015-III-11.
- Javier Gaztelurrutia Maiztegi. 75 urte. 2015-III-12.
- Leocadio Agirre Gainza. 93 urte. 2015-III-12.
- Eduardo Tubia Rivera. 74 urte. 2015-III-12.
- M^a Pilar Santurde Soto. 99 urte. 2015-III-15.
- Antonio Moraga Tejada. 86 urte. 2015-III-16.
- Esther San Miguel Padilla. 86 urte. 2015-III-21.

jaiotakoak

- Ibane Vazquez Santos. 2015-III-10.
- Ane Gabilondo Garcia. 2015-III-10.
- Patxi Flores Azpitarte. 2015-III-12.
- Kai Fuentes Bolinaga. 2015-III-12.
- Ana Lourdes Lorenzo Lopez. 2015-III-17.
- Iker Berakoetxea Gonzalez. 2015-III-20.
- Telmo Balzategi Narbaiza. 2015-III-20.

farmaziak

- ✓ **barixakua 27**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapatua 28**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **domeka 29**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 30**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **martitzena 31**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztiena 1**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 2**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 3**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **zapatua 4**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **domeka 5**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **astelehena 6**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 7**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguztiena 8**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguna 9**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **barixakua 10**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | 3 | | | | | 5 |
| | | 4 | | 7 | | | | 1 |
| | 1 | | | | 5 | 2 | 8 | |
| | 2 | 6 | 1 | | | | | |
| | | | | 9 | | | | |
| | | | | | 2 | 7 | 6 | |
| | 3 | 1 | 7 | | | | 4 | |
| 8 | | | | 4 | | 3 | | |
| 4 | | | | | 6 | | | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 2 | 5 | 6 | 9 | 8 | 3 | 1 | 7 |
| 6 | 7 | 3 | 5 | 4 | 1 | 2 | 8 | 9 |
| 9 | 1 | 8 | 3 | 7 | 2 | 5 | 6 | 4 |
| 7 | 8 | 4 | 2 | 1 | 5 | 9 | 3 | 6 |
| 1 | 3 | 2 | 8 | 6 | 9 | 7 | 4 | 5 |
| 5 | 6 | 9 | 7 | 3 | 4 | 1 | 2 | 8 |
| 8 | 5 | 7 | 4 | 2 | 3 | 6 | 9 | 1 |
| 2 | 4 | 1 | 9 | 5 | 6 | 8 | 7 | 3 |
| 3 | 9 | 6 | 1 | 8 | 7 | 4 | 5 | 2 |

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDAROC. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDAROC-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibar erdialdean. 2 logela, egogela, sukalde eta 2 komun. Trasteroa eta igogailua. 2009ko eraikina. Oso argitsua. Tel. 652-757925.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 652-532589.
- Eibarko mutil batek pisua edo buhardila hartuko luke alokairuan (1/2 lagunentzako). Tel. 665-705978.
- Pisua alokagai Jardinetza kalean, Sakunen. 2 logela. 100 m². Gasa eta beheko suarekin. Berritua. Lursail txiki batekin. Kanpora begira, bista ederrekin eta eguzkitsua. Tel. 943-254948 eta 651-678454.
- Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 648-643715.
- Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 648-643715.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-441517 eta 673-436363.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-197217.
- Logela behar da Eibarren errolatze eskubi-dearekin. Tel. 632-878150.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Taxi-lizentzia salgai Elgoibarren. Bezeroen zerrenda eta autoarekin. Tel. 686-234718.
- Taxi-lizentzia saltzen da Eibarren jubilatzaio-rengatik. Tel. 696-966865.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Untzaga plazan. Tel. 688-678934.
- Taberna traspasatzen da Eibar erdialdeko oinezkoendako kalean. Tel. 645-186309. Lorena.

3.2. Errentan

- Garaje itxia hartuko nuke errentan Barrena eta Karmen inguruan. Tel. 676-105492.
- Garajea alokagai Estazioño kalean (13. zenbakian). Tel. 943-203741.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 638-421827.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Eibarko neska eskaintzen da goizez etxeetan garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 698-604531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Erreferentziak. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 657-103380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-932184.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 661-064027.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 602-123667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-523390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 642-636525.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 688-825514.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-392169. Blanca.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-651098.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-363056.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 695-708379.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 623-064664.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 695-804895.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta orduka. Tel. 631-124942.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-740755.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-580592.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko... Tel. 632-204896.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko... Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-846244.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 687-362773.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-454417.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-705406.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-448980.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 631-089006.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka edo jornada erdiz. Tel. 632-700803.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. Tel. 632-776986 eta 602-860428.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbitzeko. Esperientzia handia. Tel. 602-860428.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsalde eta asteburuetan egun osoan ere. Tel. 689-391261.
- Neska arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Esperientzia. Tel. 639-611454.
- Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.
- Emakume eibartarra eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 649-258913.

4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Lanaldi etena. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 687-046382. Deitu 18.30etatik aurrera.
- Sukaldari-laguntzaile euskalduna behar da Eibarko taberna baterako. Tel. 606-110693.
- Sukaldariak eta kamareroa behar dira Eibarko jatetxe berri baterako. Bidali curriculum: eibarkafe@gmail.com
- Kamareroa eta sukaldaria behar dira. Bidali curriculum argazkiarekin: camareros12345@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Gitarra klase partikularrik ematen dira: gitarra elektrikoa, akustikoa, klasikoa eta baxua. Tel. 665-732640. Aitor.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Masajerako ohatila eta infragorri lanpara salgai. Prezio onean. Tel. 670-342388.
- Ohe artikulatua salgai. Ospitalekoa bezalako. Berriberria eta prezio onean. Tel. 657-799511.
- Urpekaritzako jantzia salgai. Sporasub chile Yamamoto 45, 5 mm, XL taila. 90 euro osorik eta 45 prakak bakarrik. Tel. 634-822504. Aratz.
- Peltz Nomic piolet para salgai. Berria. 330 euro. Tel. 634-822504. Aratz.
- Logela osoa salgai. 2 ohe (1'05eko bakoitza), buru tapizatuarekin, armairua eta 2 mesilla. 250 euro. Tel. 665-733483. Arrate.
- Janjela salgai. Armairua, mahai handia eta 6 jarleku tapizatuak. Egoera onean. 190 euro. Tel. 665-733483. Arrate.
- Oherako garabi manuala, bere amesarekin, salgai. 250 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.

6.2. Eman

- Paseo-aulkia behar dut umearentzat. Tel. 631-363056.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Txupetea-eusteko zilarrezko brotxea eta txupetea aurkitu ditut J. Etxeberria kale inguruan. Jone izena dauka. Tel. 943-702547.
- Armajin kalea, kanposantu ondoan, familiako ondasunak (eratzunak etab.) galduta ditut. Norbaitek aurkitu badituz, deitu mesedez. Tel. 632-997557.

Zuri esker

“Gizarte Zerbitzuei esker, ez gara bakarrik egongo; elkarrekin jarraituko dugu eta harrera familia batek zainduko gaitu”

Nahia eta June, hilabete



Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus



MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA

**ERA GUZTIETAKO BANKETEA
OSPATZEKO toki bikaina**



**250 LAGUNENDA
KOKO JANGELA**



Ozaeta Jauregia -BERGARA-
Tel. 943 76 10 55 Fax: 943 76 20 29



www.restaurantelasa.es